

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

Haurrentzako zein gurasoentzako aisialdi esparrua.

Gure proiektuarekin eskaintzen duguna zerbitzu bat da. Gure zerbitzuarekin, haurrei aisialdian kanpo zein barne espazio batean ikasteko, ezagutzeko eta aztertzeko aukera eskaintzen diegu. Baina gure eskaintza haratago doa. Guk gurasoei eta haurrei elkarrekin egoteko zenbait ekintzak eskaintzen diegu, baita ere, gurasoei, edota interesatzen zaion edonori, askotariko ikastaro edota hizketaldiak opatuko dizkiegu. Gure enpresa eta aisialdiko esparruaren izena MUNALAMIEN da. Ongi Etorriak gure proposamenera.

Haurrei gehienetan eskolaren ondoren eskolaz kanpoko ekintzetan izena ematen zaie, eta ez zaie askatasunez garatzeko aukerarik ematen. Azken finean eskolan irakasle eta hezitzaileen agindupean egoten dira, hots, helduek esaten dutena egiten dute; eta gero beste klasetara sartzen ditugu. Horren ondorioz, ez diegu haurrei behar besteko aukerak ematen haien sormena eta irudimena garatzeko, eta horrekin batera, haren nortasuna eta nia garatzeko aukerak. Horretarako ondo legoke, aisialdirako denbora uztea eta horrela bere nortasuna garatzen dute. Haurrek jolasa behar dute garapen kognitibo, sozial eta afektiko on eta eraginkor bat izateko, horretaz gain oso garrantzitsua da askatasun osoz ibili ahal izatea. Guk askatasun osoz ibiltzeko aukera ematen diogu, nahi duen moduan, nahi duenarekin eta nahi duen momentuan. Bere erabakiak hartzeko eta haiek martxan jartzeko aukera izango du, horrekin batera autonomia, psikomotrizitatea, koordinazioa, bere buruarekiko konfiantza eta segurtasuna garatuko du.

Alderdi horiek guztiak oso garrantzitsuak dira etorkizunerako, etorkizun horretan izango garen pertsonak eraikitzen laguntzen baigaituzte. Alderdi horiek lortzeko eta eraginkorrak izateko ezinbestekoa da mugimendu askea, hau da, askatasunez mugitzeko aukera izatea. Egoera hori ez da haur eskola gehienetan ematen, ezta etxeetan. Familiak ez dira guztiz kontziente haurren garapenean zer den garrantzitsuena eta berak izaten duen askatasuna eta aukerak zer nolako eragina izango duen; nerabezaroan edota helduaroan izaten diren trauma gehienak haurtzaroan bizitako bizipen ondorioak dira. Beraz, oso garrantzitsua da haurtzaroan aukerak ematea eta haurrari konfiantza elaraztea. Horregatik guk espazio seguru eta lasaia eskaintzen dugu haurren garapena ahalik eta eraginkorrena izateko.

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

Horretaz gain, hurrek haien familiekin egoteko denbora ere eskainiko diegu. Oso garrantzitsua da haurtzaroan familiarekin denbora pasatzea, atxikimendua sortzeko eta elkarrekin konfiantza izateko. Lehen aipatu dugun bezala, nerabezaroan eta helduaroan agertzen diren traumak, haurtzaroan izandako bizipen baten ondorioz izan daitezke gehienetan. Horregatik oso garrantzitsua da hurrek beraien familiaren eta inguruko pertsonen konfiantza eta segurtasuna sentitzea, horrela haurra lasaiago eta seguruago sentituko da ekintzak eta bizipenak aurrera eramaterakoan. Horrek ere, mugimendu askea aukeratzat izatean, segurtasun handiagoz eta konfiantza handiagoz ibiliko dira, baita beldur gutxiago izango ditu.

Hasieran esan bezala horrek ez dira gure aukera bakarrak eta ez dira eskaintzen ditugun zerbitzu bakarrak. Helduei hainbat ikastaro eta hizketaldi desberdin eskainiko dizkiegu. Ikastaro eta hizketaldi guztiek haurren inguruan zerikusia izango dute, hala nola, haurren autonomia garatzeko ekintza desberdinak, psikomotrizitatean espezializatuak dauden pertsonen hitzaldiak (Myrtha Chokler). Horrek, gurasoei edo familiei edota lagunei haurren garapenerako egokiena eta eraginkorra zer den erakutsiko du, eta hurrek garapen on eta osotu bat izan ahalko dute.

Gure helburu nagusia, haurren ongizatea bermatzea da. Horretarako beharrezkoa ikusten dugu jendartean haurraren haurtzaroak etorkizunean izango duen garrantziaz jabetzea, eta baita haurraren garapenean jarraipen bat egitea bere garapenean. Gure enpresak, hori guztia bermatzeko baliabideak eta zerbitzuak eskainiko ditu.